

Musika kontratatzeko irizpideak

Oholtzan eta bestelako musika jardueretan emakumeen presentzia handitzeko, musikariak kontratatzeko irizpideak ezartzea garrantzitsua da. Horretarako, honako hau proposatzen da:

- 01 → Ezaugarri berdineko bi talderen artean, **emakume gehien dituen taldea lehenetsiko da.**
- 02 → Kontratatuko diren musikarien artean, **gutxienez %36a emakumezkoa izango da.**

Kopuru hori igotzen den heinean, aurreko urteko gutxieneko ehunekoa hurrengo urteko minimoa bezala onartuko da.

Urtez urte, gutxieneko ehunekoa igotzeko ahalegina egingo da, **%50ra heldu arte.**
- 03 → Urtero **emakumez bakarrik osatutako taldeen portzentaia handitzen** joango da.
- 04 → Gaueko kontzertuetan emakumeen presentzia **minimoa %25ekoa** izango da, eta lehenago aipatu diren irizpide berdinak ezarriko dira atal honetarako.

